

[EUS/CAS] Comunicado de la organización revolucionaria JARKI ante el ataque de Israel contra Irán

JARKI :: 18/06/2025

Una lectura de la organización revolucionaria JARKI en respuesta al ataque israelí a Irán

[Castellano]

Ante el ataque de Israel contra Irán

Desde la organización vasca JARKI queremos denunciar firmemente el ataque imperialista lanzado por Israel contra Irán el pasado 13 de junio. Hasta la fecha, la entidad sionista ya ha asesinado a unas 230 personas y ha causado más de 1.300 heridos. La primera agresión tuvo como objetivo la cúpula militar Iraní, con el fin de descabezear el mando militar del país. A su vez, varios científicos del programa nuclear iraní también fueron asesinados. En los últimos días, además de bombardear diversas instalaciones de suministro, han perpetrado ataques contra civiles en los principales núcleos urbanos, mediante bombardeos, coches bomba o drones.

Para situar este ataque es imprescindible comprender el papel que desempeña Irán en Asia Occidental. De hecho, Irán es el pilar principal del Eje de la Resistencia, el núcleo de esta alianza de carácter antiimperialista y antisionista. Sin Irán, sería difícil entender la capacidad de las Resistencias Palestinas o Libanesas y su supervivencia. Irán proporciona suministros, logística, asesoramiento e inteligencia militar a todas las fuerzas de resistencia que se enfrentan al imperialismo occidental y al sionismo en la región.

Por lo tanto, este ataque imperialista lanzado por la entidad genocida, que ha contado con el apoyo de los países de la OTAN y la colaboración de los regímenes árabes reaccionarios, se ha llevado a cabo por la función que Irán desempeña en apoyo al pueblo palestino y en contra del sionismo y el imperialismo atlantista. Por lo tanto, la agresión ha de situarse en ese contexto.

Asimismo, cabe destacar que este acontecimiento no ha llegado en un momento casual. No podemos olvidar el desmantelamiento de la República Árabe Siria del año pasado ni tampoco la campaña contra Hezbollah, en la que el enemigo consiguió desgastar a la Resistencia Libanesa. Estos sucesos generaron un contexto favorable para los sionistas, lo que ha posibilitado la actual operación contra Irán.

Por lo tanto, lejos de entender el ataque contra Irán de forma aislada, debemos situarlo en el contexto de la caída de la hegemonía global del imperialismo occidental. El mundo avanza hacia coordenadas multipolares, y ese contexto a los países de la OTAN les es imprescindible controlar la zona de Asia Occidental. En este sentido, atacan a los pueblos que resisten los intentos de dominación de las potencias occidentales, y es aquí donde debemos situar los ataques contra Libia, Siria, Libano, Yemen o Irán.

En esta tesitura, y ante la criminalización que está sufriendo y que va a sufrir estos días,

queremos manifestar, sin ambages, que Irán tiene la más absoluta legitimidad para defenderse.

Más aún, queremos destacar que esta contraofensiva iraní ayuda a socavar la base misma de la entidad sionista: el establecimiento de colonos y su seguridad. Los ataques que se están llevando a cabo transmiten al ocupante una idea clara: las tierras palestinas ocupadas nunca serán un lugar seguro en el que vivir para los colonos sionistas. Esto ataca directamente la supervivencia del proyecto de la entidad. Y es que, en un sentido estratégico, poner en peligro la seguridad de los colonos provoca que cada vez sean más los colonos se abandonen el territorio y cada vez menos se establezcan allí.

La causa antisionista y antiimperialista es la causa de los pueblos trabajadores. Por lo tanto, es nuestro deber posicionarnos en contra del ataque imperialista que actualmente está sufriendo Irán y apoyar la confraofensiva que lleva a cabo contra la entidad sionista y la OTAN.

[Euskara]

Israelek Iranen aurka abiarazitako erasoaren harira

Ekainaren 13an Israelek Iranen kontra abiarazitako eraso imperialista irmoki salatu nahi dugu. Honezkerot, entitate sionistak 230 pertsona inguru erail eta 1.300etik gora zauritu eragin ditu. Lehen erasoak Irango buruzagitza militarra izan zuen jopuntu, herrialdearen aginte militarra erauzteko helburuarekin. Halaber, Irango programa nuklearreko hainbat zientzialari ere izan ziren erailak. Azken egunotan, askotariko hornikuntza instalazioak bombardatzeaz gain, hirigune nagusietan ere zibilen aukako erasoak burutu dituzte, bombardaketa, auto-bomba edo drone bitartez.

Eraso hau kokatzeko nahitaezkoa da Iranek Asia Mendebaldean jokatzen duen papera ulertzea. Izaera antiimperialista eta antisionista duen aliantza honen muina, alegia. Iran gabe, zaila litzateke Palestinar edo Libanoar Erresistentziaren gaitasuna eta hauen biziraupena ulertzea.

Hornikuntza, logistika, aholkularitza eta inteligentzia militarra eskaintzen die eskualdean Mendebaldeko imperialismoari eta sionismoari aurre egiten dieten erresistentzia indar guztiei. Beraz, entitate genozidak NATOko herrialdeen babesarekin eta arabiar erregimen erreakzionarioen kolaborazioarekin abiarazitako eraso imperialista hau Iranek palestinar herriaren alde eta sionismo zein imperialismo atlantistaren aurka betetzen duen funtzoagatik gauzatu da. Beraz, testuinguru horretan kokatu behar dugu.

Era berean, nabarmentzekoa da gertakari hau ez dela edozein momentutan etorri. Ezin ditugu ahaztu iazko Siriar Arabiar Errepublikaren eraisketa eta Hezbollahren aukako kanpaina, Erresistentzia indar libanoarra higatzea lortu zuena. Gertakari hauek sionisten mesedepoko testuinguru bat sortu zuten, Iranen aukako egunotako operazioa ahalbidetu duena.

Hortaz, Iranen aurkako erasoa ezin dugu modu isolatuan ulertu, Mendebaldeko imperialismoaren hegemonia mundialaren gainbehera testuinguruan baizik. Mundua koordenada multipolarretara mugitzen ari da, eta NATOko herrialdeei ezinbestekoa zaie Asia Mendebaldeko zonaldea kontrolpean edukitzea. Zentzu horretan, Mendebaldeko potentzien menderakuntza saiakerei aurre egiten dieten herriak jopuntuan jartzen dituzte, eta hor kokatu behar dira, hain zuzen ere, Libia, Siria, Libano, Yemen edo Iranen aurkako erasoak.

Horren aurrean, eta egunotan jasaten ari den eta jasango duen kriminalizazioaren aurrean, Iranek bere burua defendatzeko erabateko zilegitasuna daukala adierazi nahi dugu, ezbairik gabe.

Areago, azpimarratu egin nahi dugu Iranen kontraofentsiba honek entitate sionistaren funtsezko oinarria kolpatzen duela: kolonoen nagusitasuna eta hauen segurtasuna. Aurrera eramatzen ari diren erasoek ideia argi bat hedatzen dute kolonoengan: okupatutako lur palestinarrak inoiz ez dira bizitzeko toki seguru bat izango kolono sionistentzat. Honek entitatearen proiektuaren biziraupenean zuzenean eragiten du. Izan ere, zentzu estrategikoan, kolonoen segurtasuna kolokan jartzeak gero eta kolono gehiagok alde egitea eta gero eta gutxiago bertara bizitzera joatea eragiten du.

Kausa antisionista eta antiimperialista herri langileon kausa da. Horrenbestez, une honetan Iran jasaten ari den eraso imperialistaren aurka eta honek entitate sionistaren eta NATOraren aurka aurrera daraman konfraofentsibaren alde lerratzea dagokigu.

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-ante-el-ataque>